


BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure zerbitzua bezeroengana helarazteko hainbat metodo erabiliko ditugu.



Erabiliko dugun komunikazio-metodo nagusia marketing digitala da. Hau da, online plataformak erabiliko ditugu, hala nola sare sozialak, webguneak eta blogak. Horretarako, eduki erakargarria sortuko dugu, hezkuntza-onurak eta esperientziaren dibertsioa nabarmentzeko.

Beste metodo bat izango da hezkuntza-erakundeekin aliantzak. Eskolekin eta elkarteekin lankidetzan arituko gara, gure escape rooma eskola-programetan txertatzeko. Hala nola, Autismo Araba, ASPACE ÁLAVA, ADAHI, EGINEZ, Arabako gorrak, Aspasor, Zuzenak, FEKOOR, Itxaropena eta GORABIDE.

Publizitatea jarriko dugu leku estrategikoetan. Adibidez iragarki taulak.

EDU-ROOMS

Ateratzeko gai izango zara?
Zatoz zure familiarekin edo zure lagun taldearekin!

ORDUTEGIA

- 10:00h-14:00h
- 17:00h-20:00h

INFORMAZIO GEHIAGO

- ✉ edu_rooms@gmail.com
- 🌐 www.edurooms.es
- ☎ 945 85 90 58

@edu_rooms
@edu_rooms
/edu_rooms

Promozio bereziak eskainiko ditugu. Hala nola, eskaintza bereziak, deskontu-kupoiak eta opari-txartelak sortuko ditugu.



Testigantzak eta erreseinak bilduko ditugu. Hau da, gure edu-room hezitzailea probatu duten taldeen testigantza positiboak bilduko ditugu eta horiek gure marketing-kanaletan partekatuko ditugu.